



IGANDEAN SANTAMAÑAKO KROS IGOERA

Hamargarren edizioa izango da aurtengoa; Santamañako jaien txupinazoa, hala ere, hilaren 16an botako dute >5

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2010-07-07

VIII. URTEA 2.046. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Plaza Berriko kioskotik bota zuten atzokoan txupinazoa. I.TERRADILLOS



HITZA

ION GARMENDIA HOGEIHAZT PROIEKTUKO KIDEA

«Euskal musika tresnak jo arren ez dugu musika tradizionala egiten»

TOLOSA Kontzertua eskainiko dute bihar 22:30etik aurrera Euskal Herria plazan 3

ESKUALDEAN ERE OSPATU DUTE SAN FERMIN EGUNA

TOLOSA Tolosan, urtero bezala, Alde Zaharreko bizilagunek sanferminak ospatzeko suzeria bota eta entzierroa egin zuten 2

Herritarrek Aranalderi babesa agertu diote

IBARRA Euskal presoak astebete darama gose greban; gaur giza-katea egingo dute 19:30ean 7





Tailerretako ikasleen lanen erakusketa

KULTURA ■ Kultur Etxean pintura, argazkilaritza, zeramika, joskintza, egur taila... tailerrak izan dituzte ikasturtean zehar. Herritar ugari hartu dute parte eta ikasi dutena jendaurrean erakusteko aukera izan dute. Izan ere, egunotan egin dutenaren adibide bat dago ikusgai Aranburu jauregian jarri duten erakusketan. Guneko bi solairutan banatu dituzte ikasleen lanak. i.t.



Txupinazoaren ostean goxokiak eta globoak banatu zituzten Plaza Berriko kioskotik. i.t.



Buruhandiak gaztetzoen atzetik korrika ibili ziren. i.t.



Gaztetz ugarri jantzi ziren atzokoan zuri-gorritz. i.t.



Laskorain ikastolan ere egin zuten sanferminetako entzierroa. HITZA

Kolore txuri-gorriak honaino iritsi dira

IÑIGO TERRADILLOS

San Fermin egunean festa giroa izaten zen nagusi antzina Alde Zaharrean. Gerora, egun hori ospatzeko ohitura desagertuz joan zen,

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Arropak.** Bizikletan ibiltzeko arropak salgai (kamisetak, kulotek, txaketak...) Euskaltel markakoak. Oso berriak. XXL neurrikoak. 637 94 80 12.

baina, azken urteetan, Alde Zaharreko bizilagunen ekimenez, berriro ere kolore txuri-gorriak gailentzen dira, eta festatxoa egiten dute Plaza Berrian.

Atzokoan ere, San Fermin jaietako ohiko osagaiak ez zuten hutsik egin. Egurdian suziria bota

zuten Plaza Berriko kioskotik, eta «Gora San Fermin!» oihukatzearekin hasi zen jai giroa. Egunak eskatzen zuen bezala, hau da, txuri-gorritz jantzita, herritar ugari azaldu zen, batez ere gaztetzkoak, eta hauek ederki gogor zuten, lehendabizi goxoki eta globoak jasotzen,

eta ondoren, buruhandien aurretik korrika.

Hutsik egin ezin zutenak zezekak ziren, eta horiek arratsaldean egin zuten agerraldia. Hala, entzierro txikia egin zuten, berriro ere gaztetz ugarri animatu zirelarik. Entzierroarekin batera, Pox-

polo eta konpainiaren ikuskizunaz gozatzeko aukera ere izan zen Plaza Berriko tabernariaren eskutik.

Laskorainen festa polita

Plaza Berrian ez ezik, leku askotan izan dituzte sanferminak gogoan. Laskorainen esaterako, denetarik izan zuten: kareetak, txupinazoa, pregoia, gozokiak, jolasak, zezekak eta buruhandiak. «Giro polita» sortu zen ikastolako patioan udaleku irekiko haurrekin. Hauek San Fermin egunaz gain, euskal eguna, piraten eguna, inauterriak, kirolaren eguna, ibilaldi eta egun pasak izan dituzte, besteak beste.

Gidariak behar dira dokumentazioa eta balijak banatzeko.
Postu finkoak erakunde publikoetan.
Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenurako langileak behar dira.
Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako.
Postu finkoak.
Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40

E Elkarrizketa

ION GARMENDIA › Hogeihatx proiektuko kidea



Hogeihatx-en kontzertua Iñaki Plaza, Ion Garmendia eta Kepa Calvo musikariek eskainiko dute. REBEKA CALVO

«Biharko kontzertuan Xabier Zeberioaren laguntza edukiko dugu»

Musika › Gau-Giro 2010-en baitan Hogeihatx Proiekt-eko kideek kontzertua eskainiko dute Euskal Herria plazan, bihar 22:30ean.

ASIER IMAZ

Etiket gertu eskainiko du kontzertua Ion Garmendiak (Ibarra, 1979) biharkoan. Iñaki Plaza eta Kepa Calvoren batera, Hogeihatx proiektua Tolosako Euskal Herria plazara iritsiko da 22:30ean, Gau-Giro 2010 ekimenaren baitan. Bertan, ibartarrak txistu, alboka, steel drum-a, tubiogh-a eta txalaparta joko ditu.

Gau-Giro 2010 Santa Klara komentura joango da etzi, hilak 10. Bertan, 20:30ean, JM Morenok eta Soledad Cardosok *Los muchos caminos a Santiago* emanaldia eskainiko dute.

Hogeihatx Proiekt zer den, nola azaltzen duzu?

Hiru arlo bereizi ditzakegu: bate-tik, kontzertu didaktikoak eskaintzen ditugu, bestetik ikastaroak eta azkenik, diskoa atera dugu. Disko horren zuzeneko emanaldia, Tolosan eskainiko dugun kontzertua izango da.

Diskoan hainbat kolaboratzailek hartu dute parte. Biharko kontzertuan egongo al dira?

Xabier Zeberio tolosarra gurekin egongo da. Oskorri eta Alos Quartet taldeko kidea da eta diskoan parte hartu zuen. Gonbidatu beza-

la abesti batzuetan oholtzara igoko da, bere nyckelharparekin.

Zuen zuzenekoak, lehenik eta behin, begietatik sartzen dela esan beharra dago.

Nire ustez, diskoari balioa zuzenekoak ematen dio. Diskoa bera entzutea baino jendea gehiago gus-tatzen zaio kontzertua ikustea. Txalapartagatik, tubiogh-arengatik... Kontzertuak jendeak hiru pertsona bakarrik ikusten ditu, baina gauza erabat desberdinak jotzen. Mugimendua etengabea da.

Tubiogh-ak aipatu dituzu; ar-miarmen hankak diruditen tubo

eta tutu horiek, zer diren nola azaldu?

PVC tuboekin egin dugun instrumentua da. Aldeetako batek gomazko partxe batzuk daramatza eta partxe horietan jotzen dugu, batera jotzeko erabiltzen diren baketekin. Tutuen luzeraren arabera afinatu egiten ditugu, hau da, neurriaren arabera nota bat edo bestea ematen dute.

Eta nolako soinua irteten da?

Baxu elektriko baten antzeko soinua da.

Idea nondik sortu zitzaizuen?

Badira antzeko tresnak munduko beste hainbat lekutan, baina jotzeko sistema, hau da, gomazko partxeena, guk personalizatutakoa da. Behararen arabera egokitu ditugu: jotzeko garaian erosoena nolagelditzen den ikusi eta horrela

jarri ditugu. Txalaparta jotzeko teknika bera erabiltzen dugu Tubiogh-ekin.

Ikus daitekeena alde batetara utzita, entzumenak zer aurkitzen du zuen kontzertuetan?

Euskal musika tresnetan oinarritutako zuzeneko bat da, baina ez da musika tradizionala. Tresnak tradizionalak izanagatik egiten dugun musika ez da dildo horretakoa; horrela denik ez zaigu iruditzen behintzat.

Diskoan dauden eta ondorioz, zuzenekoan eskaintzen dituzuen abesti guztiak zuek sortutakoak al dira?

Bai, denak guk sortutakoak dira. Beste ikuspegi bat bilatzen saiatzen gara: hainbat lekutako musikak nahastuz edo erritimo desberdinak bilatuaz.

Kantu gehienak instrumentalak dira, baina abestuak ere aurkitu daitezke. Adibidez, Amaia Agirrek egin dizkizuen bertsoak aipatu genitzake. Kontzertuetan abesti horiek jotzen al dituzue?

Zuzenekoetan jotzen ditugu, baina abestu gabe. Gero, emanaldi batzuetan gonbidatuak izaten ditugu eta aukera baldin badago diskoan agertzen diren bezala aurkezten ditugu. Abuztuan adibidez, Frantziako jaialdi batetara goaz, eta gonbidatu bezala diskoan parte hartu duen Guadi Galego abeslaria gurekin etorriko da.

Abizenak dioen lekukoa al da?

Bai, galiziarra da.

Eta euskaraz abestu du zuekin?

Hori da.

Frantzia aipatu duzu baina, lehendik ere munduan barrena ibiliak zarete.

Lehenago asteburuan adibidez Portugalen egon ginen. Hurrengo astean Herrialde Katalanetara joango gara; uztailean Galiziarra; gero Frantziara lehen esan bezala, eta abuztu amaieran Italiara; irailan berriro Herrialde Katalanetara, Madrilera...

Aita izan berria zara, horrenbeste bidaiekin nola moldatzen zara?

Lo egiteko aprobetxatuko ditut (barreak). Azkenean, beste lan bat bezalakoa da. Haurra izan aurretik ere, hori argi eduki behar duzu.

Instrumentu berezi horiek hemen harridura sortzen baldin badute, kanpoan gutxiago ez da izango.

Nolako harrera izaten duzue?

Harrera oso ona eta beroa izan dugu orain artean. Portugalen adibidez, herritik aparte zegoen anfiteatro batean jo genuen, eta kontzertua hasi baino 15 minutu lehenago dena bete zegoen; 300-400 lagun egongo ziren bertan. Kontzertuaren amaieran 50 disko saldu genituen, eta hori hemen lortzea oso zaila da.

Diskoak sinaturik saltzeaz gain, publikoarekin hitz egitea ere asko gustatzen omen zaizue. Zer galdetzen dituzte?

Gehienbat instrumentuak gertutik ikustea gustatzen zaie, musikariorik hitz egitea ere bai. Hau zer den eta hori zer den galdetzen dute, instrumentuak hein batean berriak baitira eurentzat. Kontzertuen amaieran oso giro polita sortzen da.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Eusko Herria Produktak, ekoizpenetik zuzenekoak

Beste produktuak eskaintzen dituen beste tokiak ere baditugu Eusko Herria Plazan.

www.euskalherria.com
plaza.com

Leire Olaberriak Giroa utzi behar izan du erorketa bat dela eta

Ikaztegieta » Pasa den larunbatean erori zen, bigarren etapan, baina ezin izan da guztiz sendatu eta etxean da jada.

ERREDAKZIOA

Ikaztegieta Leire Olaberria txirrindulariak pasa den larunbatean hasitako emakumeen Giroa utzi behar izan du. Larunbatean bertan, bigarren etapan, erori egin zen kirolaria eta ezin izan da guztiz sendatu, horregatik erabaki du Giroa uztea.

Leire Olaberria Debabarrena Kirologi taldearekin batera joan zen Giroan parte hartzera, sei ziren

guztira taldekideak -Imma Rafael, Ane Sanesteban, Irene San Sebastian, Inma Pereiro, Ana Yunta eta Leire Olaberria bera- bainaj taldeko lider izateko hautatu bazuten ere, etxerako bidea hartu behar izan du ikaztegiatarak.

«Min handia zuen»

«Orain egun gutxi izan zen erorketari ezin izan dio aurre egin», argitu du Olaberriaren zuzendari teknikoak, Juanjo Sebastianek. Honek etxera bueltatu izana «normala» dela ere badio. «Oina bizikletan jartzera koan min handia zuen», argitu du.

Horiek horrela, Olaberria Ikaztegieta da une honetan, atzo goizean bidaiatu zuen Milanetik Do-



Leire Olaberria, Munduko pistako txapelketan abiatzeko zain. HITZA

nostiarra eta hausturirik ez dagoela badirudi ere, proba desberdinak egingo dituzte.

«Giro berri bat»

Leire Olaberria pistari ibili ohi da, baina oraingoan errepidean ere aritu nahi zuen, eta Eibarko taldeko kide bezala bere lehen denboraldia da. Ikaztegiatarak errepidean egin dituen lasterketetan argi utzi du pistatik kanpo ere ederki moldatzen dela, hala ere. Giroa, gainera, pistarako entrenamendu moduan ere baliatu nahi zuen.

Giroko sailkapen orokorrean 20. postuan zegoen eta lan txukuna egiten ari zen.

«Hemendik aurrera Giro berri bat hasiko da», izan ere, Olaberria gabe Debabarrena Kirologi taldekoek badakite ez direla sailkapen orokorrean egongo, eta beraz, euren helburua orain «ihesaldietan ezusteko» ematea izango da eta baita «etaparen bat irabazten saiatzea» ere, Sebastianen hitzetan.

Giroak gaur jarraituko du eta egun gogorra izango dute gainera, 110,8 kilometroko etapaburutu beharko baitute; itsasoaren mailatik hasi arren, 1.124 eta 754 metroko bi gailur igo beharko dituzte.

Ahozkotasuna lantzeko jardunaldiak Mintzolan

Villabona » 'Ahoa bete hots' izeneko jardunaldietan izena emateko epea hilaren 16an bukatuko da.

OIHANA IGUARAN

Euskal Herriko Bertsotale Elkarte eta Mintzola Fundazioa dira *Ahoa bete hots*. *Ahozkotasuna kulturaren, eguneroko jardun berezietan eta haur munduan* jardunaldien antolatzaileak, eta helburua da «kulturan, eguneroko jardun

berezietan eta haur munduan euskararen ahozko gaiez eginiko gogoetak bildu eta esperientziak jasotzea». Antolatzaileen hitzetan, «etorkizunera begirako gakoak zeintzuk izan daitezkeen ikusteko» izango da baliagarria.

Ahozkotasunaren munduari lotua dagoen jendea gonbidatu dute jardunaldi hauetara. Bertan Piter Ansorena, Gorka Tolosa, Itziar Rekalde, Miren Ibarluzea, Joan Kruz Igerabide, Julian Beloki, Antton Luku, Jose Angel Irigaray eta Lorea Agirre adituak izango direlarik. Hilaren 22, 23 eta 24an izango

dira jardunaldiak Villabonan, Mintzola Fundazioaren eta Bertsotale Elkartearen egoitza den Subijana Etxean eta izena emateko epea datorren hilaren 16an bukatuko da.

Jardunaldiak irakasle, kazetari, bertsolari, ipuin kontalari, antzezle, euskara teknikari, ikerlari eta oro har, ahozkotasunak bizi duen orori zuzenduak direla argitu dute antolatzaileek.

Eskolak 08:30ean hasiko dira eta 14:00etan bukatu. Lehen egunean (hilak 22) Jose Ignazio Ansorenak, Gorka Tolosak eta Itziar

Rekaldek emango dituzte eskolak, bigarren egunean (hilak 23) Miren Ibarluzeak, Joan Kruz Igerabidek eta Julian Belokik eta azken egunean (hilak 24) Atton Luluk, Jose Angel Irigarayk eta Lorea Agirrek. Egutero 12:30ean mahai-ingurua ere egingo dute 13:30ak arte.

Izena emateko pausuak

Apuntatu nahi duenak bi aukera ditu eskura.

Batetik, telefonoz egin daiteke honako zenbaki honetara deituta: 943 69 41 29.

E-mailez egiteko aukera ere badago, honako hau da helbidea: administrazioa@bertsotale.com. Honako datu hauek eman beharko dira: izena, abizenak, helbidea, nortasun agiria, telefonoa, e-posta eta sorteguna.

Matrikula arrunta 50 eurokoa izango da. Dena den, ikasle, langabetu eta Euskal Herriko Bertsotale Elkarteok Bazkideek %30eko beharapena edukiko dute eta 35 euroren truke eman ahal izango dute izena. INEMeko agiria edo unibertsitateko matrikula agiria igorri beharko dira horretarako.

Clowneko hastapeneko ikastaroa Asvinenean

Aduna » Arte eszenikoko eskolak clown ikastaroa proposatu du asteburu honetarako; gaur da apuntatzeko azken eguna.

OIHANA IGUARAN

Clown-a nahiko pertsonaia berezia da Asvinenean pertsonaia honen inguruko hastapeneko ikastaro eskainiko duen Ana Perezek azaldu duenez: «erraz harrizten dena, izaera sinplekoa eta bihotz zabalekoa».

Ikastaroa hilaren 10ean eta 11n izango da eta gaur da izena emate-

ko eta ordainketa egiteko azken eguna.

Lotsa galtzeko baliagarria

Irakasleak mundu guztia animatzen du bertan parte hartzera, izan ere ikastaro honen helburu nagusia lotsa galtzea da, «lotsagarri geratzeko beldurra plazer bihurtuz», zehaztu du irakasleak.

Ana Perezek argi dauka «bata-batekotasuna, errugabetasuna eta herabetasuna» landu behar ditugula bizitzan, «ingurukoekin fidatzen izateko eta eurengan babesa bilatzeko».

Beraz, antzerki eskola soil bat

baino gehiago izango da ikastaroa; «pentsatzeari utzi eta jolasten ikasiko dugu, inpulstiboago izaten, azken finean».

Inprobisatzeko gaitasuna

Pertsonaia honen bidez, inprobisatzeko gaitasuna landuko dute, clown-ak ez baitu «beste inoren izaera antzeztzen, bere izaera propioa gardenki islatu baizik».

Bere sentimenduetan garrantzitsuak azaltzea omen da ezaugarrietako bat, eta sentimendu batekin bestera erraztasunez igarotzea bestea.

Honela, clown-ak ikusleei bere egoera, sentimendua, eta azken

batean, mundua, helaraziko die, irakasleak argitu duenez. «Antzerki munduan, kanpo-jolasa deitzen zaio honi», dio.

Ana Perezek Bartzelonako Adierazpen Eskolan sorkuntza artistikora bideratutako Gorputz Adierazpena ikasi zuen. Aktore izateko berriz, Serge Martin Eskolan ikasi zuen. Era berean, konpainia eta obra desberdinetan aritu da lanean.

Dantza eta doinu afrikarrak

Bestetik, gogoratu behar da, hilaren 17an, perkusio eta dantza afrikarren hasiberrien ikastaroak izango direla.

» IKASTAROKO DATUAK

■ **Noiz.** Asteburu honetan, hilak 10 eta 11.

■ **Ordutegia.** 09:30etik eta 14:00etara eta 15:30etik 17:30era.

■ **Prezioa.** 80 euro (bi egunetako bazkariak sartzen dira matrikula prezioan).

■ **Izena emateko bideak.** Batetik Asvineneako webgunetik egin daiteke (www.asvinenea.com) bertan dagoen fitxa deskargatu, bete eta asvineneacursos2010@gmail.com helbidera bidaliz. Bestetik, 647-20 14 01 telefono zenbakira ere deitu daiteke.

Igandean Santamañako X. Kros Igoera izango da

Asteasu » Santamañako jaiak ere ate joka daude, hilaren 16an hasiko dira. Asteburu honetan, musa eta Kros Igoera izango dira.

ENERITZ MAIZ

Asteburu honetan eta hurrengoan, Santamañan festa izango da nagusi. Santa Marinaren omenez, Santamaña Elkarteak, Goiballako bizilagunak eta Asteasuko Udaleko Festa Batzordearen artean, uztailearen 10, 11, 16, 17 eta 18rako prestatutako jaiak dira.

Festei hasiera, hilaren 16ean emango badiete ere Tranpazuloren igoerarekin, larunbat eta igandean honetan Santamañan elkartu eta jendea bertara gerturatzeko aitzakiarik ez da faltako. Larunbatean, hilak 10, Santamañako XVI. Mus Txapelketa egingo dute. 22:00etan emango zaio hasiera.

X. Kros Igoera

Hilaren 11ean igandea, 10:30ean emango zaio hasiera igoerari. Ibilbideak zazpi kilometro ditu eta herriaren zehar bi itzuli eman ostean, Santamañara igo beharko dira.

Bertan parte hartu nahi dutenek, egunean bertan izena emateko aukera izango dute. Ordu bete lehenago herriko plazan bertan edota telefonoz ere eman daiteke:

943 69 68 96 edota 943 69 34 00 zenbakietara deituz. Izena ematean, 2 euro ordaindu beharko ditu parte hartzaile bakoitzak, asegurua ordaindu ahal izateko.

Parte hartzen duten gizon eta emakumeek sariak izango dituzte: lehen bost sailkatuek, 150 euro, 90 euro, 60 euro 30 euro eta 20 euro jaso dituzte, hurrenez hurren. Behin igoera amaitzean, parte hartzaileen artean beste sari batzuk ere zozketatuko dituzte. Eta antolatzaileek, hamaiketako eskainikodute.

Orain arteko denborarik onenen jabeak hauek dira: gizonen artean Iban Sanchezek du 25 minutu eta 50 segundoko denborarekin. Emakumezkoetan berriz, Aintzane Argaizek egina da. Erlojua, 33 minutu eta 21 segundotan geldituz. Aurtengo parte hartzaileen artean errekorra jarritz gero, sari berezia eskuratuko lukete.

Kros Igoeraren antolatzailea Santamaña Elkarteak da eta Asteasuko Udala du laguntzaile.

Festei hasiera, hilaren 16an

Santamañako festei hasiera, hurrengo ostiralean emango diete Tranpazuloren igoera eta txupinazoarekin. Ondoren herri afaria egingo dute. Eta goizaldera arte, Kupela talderekin erromeria izango dute. Eta txokolata beroa hartzeko aukera ere izango da.



IX. Kros Igoerako parte hartzaileetako batzuk Santamañarako bidean. I. LAHIDALGA

Larunbatean, meza nagusiarekin hasiko dute eguna eta ondoren, hamaiketako egingo dute. 13:00etan, herri kirolak izango dituzte bailarakoen artean. Jarraian, bertsolariak Mañukorta eta Peñagarikano eta trikitilariak, Izer, Alabier eta Lutxurdio izango dira. 17:30ean, kalejira egingo dute eta

gauean berriz ere, Izer, Alabier eta Lutxurdioren txanda izango da.

Igandean, Andazarrateko XXVI. Igoera izango da federatu gabeko txirrindularientzat. 11:30ean, meza nagusia eta ondoren herri kirolak izango dituzte. Aizkolariak, Floren Nazabal, Ugaitz Mugerza eta Jokin Alkiza-

lete eta harri jasotzaileak, Joseba Ostolaza eta Urdax Magunazelaia (12 urte). 18:00etan, X. Zaldi Lasterketa izango da eta ondoren trikitilariak eta bertsolariak arituko dira. Gauean Laja eta Landakanda trikitilariak eta gauerdian Tranpazuloren jaitsiera egingo dute festei amaiera emateko.

» SANTAMAÑAKO JAIK 2010

Uztailak 10, larunbata

■ **22:00etan.** Santamañako XVI. Mus Txapelketa.

Uztailak 11, igandea

■ **10:30ean.** Santamañako X. Kros Igoera.
■ **17:00etan.** Haur Jolasak egingo dituzte.
■ **Ondoren.** Txokolatada.

Uztailak 16, ostirala

■ **20:00etan.** Festei hasiera emango diete, Tranpazuloren igoera egingo dute eta txupinazo bat izango dute.
■ **21:00etan.** Herri afaria.

■ **Ondoren.** Kupela taldearekin erromeria. Eta goizaldera, txokolatada.

Uztailak 17, larunbata

■ **11:00etan.** Meza nagusia.
■ **Ondoren.** Hamaiketako.
■ **13:00etan.** Herri kirolak (Bailarakoen artean).
■ **Ondoren.** Bertsolariak: Mañukorta eta Peñagarikano. Eta trikitilariak: Izer, Alabier eta Lutxurdio izango dira.
■ **17:30ean.** Kalejira.
■ **Gauean.** Izer, Alabier eta Lutxurdio trikitilariak. Eta goizaldera, txokolatada emango dute.

Uztailak 18, igandea

■ **10:00etan.** Andazarrateko XXVI. Igoera (Federatu gabeko txirrindularientzat).
■ **11:30ean.** Meza Nagusia.
■ **Ondoren.** Herri kirolak: aizkolariak, Floren Nazabal, Ugaitz Mugerza eta Jokin Alkizalete. Harri jasotzaileak: Joseba Ostolaza eta Urdax Magunazelaia (12 urte). Laja eta Landakanda alaiturik.
■ **18:00etan.** X. Zaldi Lasterketa.
■ **Ondoren.** Trikitilariak eta Bertsolariak.
■ **Gauean.** Laja eta Landakanda. Gauerdian, festei amaiera Tranpazuloren jaitsierarekin.

VII. Trasnernio Txapelketako bigarren kanporaketa jokatu da

Aduna » Lehen partidak jokatu, bigarren kanporaketakoak bihar eta etzi jokatu dituzte herriko pilotalekuan.

E. MAIZ

Aurreko asteko ostiralean eta larunbatean jokatuak partidekin eman zitzaion hasiera Adunako VII. Trasnernio Txapelketari. Jokatuak partidak emaitza hauek utzi zituzten.

Aurreko alean, alebin eta infantilen partidak jokatu ziren. Alebinetan, Lasarte, Adunaren aurka aritu zen eta herritarrek 9 tanto baino ez zituzten egin eta galdu egin zuten. Partida 16 tantora jokatu zuten.

Infantilen arteko partida Amezketak eta Lasartek jokatu zuten. Amezketak 2 eta Lasartek 18 tanto egin zituzten. Partida guzti hauek galten zuten bikoteak, kanporatuak izaten dira VII. Trasnernio Txapelketatik.

Larunbat goizean, benjamin mailako bi partida eta kadeteen mailako bat jokatu ziren. Benjaminetan lehen partidari, Aduna Zizurkilen aurka aritu zen eta etxekoek eskuratu zuten garaipena, 16-14 emaitzarekin. Bigarren partidari, Bidegoian eta Lasarte aritu ziren eta Bidegoianek 16 tanto eta Lasartek 2 egin zituzten.

Azken partida kadeteena izan zen. Añorgako pilotariak, Zizurkilen aurka aritu ziren. Añorgak 22 eta Zizurkilek 7 bukatu zuten partida.

Bihar eta etziko partidak

Partida guztiak ostiral eta larunbatean jokatu dira eta bihar, 18:30etik aurrera, alebin eta infantil mailako hiru partidak jokatu dira.

Alebinetan, lehen partida Andoin eta Adunaren artekoa izango da eta bigarrena berriz, Bidegoian eta Adunaren artekoa. Infantilen kasuan, Villabona eta Bidegoian herriak arituko dira aurrez aurre.

Larunbatean ere beste hiru partida jokatu dira. Kasu honetan, benjamin eta kadeteen mailakoak izango dira. Partida hauek 11:00etan hasiko dira. Benjaminetan, Andoin eta Villabona lehiatuko dira. Eta kadeteen mailan, alde batek, Usurbil eta Bidegoianen arteko lehia izango da eta bestetik, Hernani eta Lasarteren artekoa izango da.

Laburrak

Festa alternatiboetako bazkariko txartelak salgai

ALEGIA » Alegiarrek herriko Karmen Jaiak ospatuko dituzte datorren astean. Eta urtero bezala, Buibarrean ospatzeko, festa alternatiboak prestatu dituzte. Hilaren 16ean, Karmen egunarekin, herri bazkaria egingo dute. Bazkaria jontxo txartelak salgai daude. Hilario, Etxeberria eta Ixkiña tabernetan jarri dituzte eta txartel bakoitzak 15 euro balio du. Txartelak eskuratzeko azken eguna, hilak 18, igandea, izango da.

Gaur 21:00etan Herri Batzarra liburuetan

IKAZTEGIETA » Ezker abertzaleak deituta, gaur 21:00etan Herri Batzarra egingo dute liburuetan. Ordu bete inguruko iraupena izango du eta bertan, batik bat, Ezker Abertzalea eta EA-ren arteko

akordio estrategikoak hitz egingo da. Herritar guztiak gonbidatuta daude bertan parte hartzera eta era berean, euren iritzia emateko aukera izango dute.

AHT-ko lanak direla eta elkarretaratzea bihar

ADUNA » Abiadura Handiko Trenaren obrak direla eta, bihar 09:00etarako deitu dute lehen deialdia eta akten altxamendua egitera udaletxera joan behar dute. Akten altxamendua desjabetzeak dauden kasuetan ematen da eta Adunakoa, ez da kasua. Adunan, denbora baterako lurra erabiltzen ari dira eta horretarako ez da beharrezkoa akten altxamendua egitea. Hori dela eta, AHT Gelditu Elkarlanak deituta, bihar elkarretaratzea egingo dute 08:30ean Udaletxearen aurrean. Herritar guztiak, protestarekin bat egiteko deia luzatzen diete.

Abenduan kaleratuko dute 'BerrobiBerri' aldizkaria

Berrobi » Sanagustinen bezperan kaleratu ordez, oraingoan urtearen amaieran argitaratzea erabaki du lantaldeak.

ERREDAKZIOA

Berrobin *BerrobiBerri* aldizkaria argitaratzen dute urtero. Urtekari moduko bat da, urtean herrian izan diren gertakarien errepasoia egiten duena. Iaz hamargarrena argitaratu zuten, eta oraingoan, berrikuntza bat ere iragarri dute. Izan ere, Sanagustin bezperan atara beharrean, urtearen amaieran, abenduan, kaleratuko dute. «Hammar hariko soka ezin eten, dio esarak. Eta ez da nolana etengo. Hamargarren *BerrobiBerri* kaleratu genuen iaz. Konturatzera joan zaizkigu urteak. Eta hamaika ikusteko jaiok garenez, hamaikagarrena ere hasiak gara prestatzen.

Aurten, ordea, aldaketa nabarmen bat izango da: Sanagustinen bezperan kaleratu beharrean, urtearen amaieran argitaratuko dugu *BerrobiBerri*. Beti-beti festen atarian kaleratu izan dugu aldizkaria. Aurten, ordea, urtea amaitzearekin batera argitaratuko dugu», zehaztu dute aldizkaria lantzen duen lantaldeak.

Urtekaria

«Hasiera-hasieratik izan da gure asmoa herriko urtekaria izatea, urte batetik bestera Berrobin izandako berriak, gorabeherak eta abarrik jasotzea, urtean zehar jaiotakoak eta hildakoak gurera ekartzeta... Eta horretarako, egokiagoa iruditu zaigu urte naturala kontuan hartzea, eta abenduan kaleratzea aldizkaria», azaldu dute. Ohitura bihurtzen hasia zen Sanagustinen atarian aldizkaria buzoian aurkitzea eta lantaldeak uste du «Gabonen bezperan Olentzerore-

kin batera etortzera ere» ohituko direla herritarrek.

«Hamaika ahalegin, hamaika gorabehera eta hamaika ilusio. Hamaika poz txiki eta batez ere, hamaika lagun izan dira hamaikagarren honetara iristeko. Auzolana baita aldizkaria. *BerrobiBerri* lantaldeko kideok biltzen dugu informazioa, jasotzen ditugu argazkiak batetik eta bestetik, eta halaxe mamitzen dugu aldizkaria», esan dute. Urteen joanean, ordea, kolaborazioak ugaritu egin direla diote lantaldeko kideek, eta baita «herri-tarrei zabalduko iritzi-tarteak» ere, «guretzat oso-oso garrantzitsuak dira ekarpen eta iritzi horiek, asko aberastun dutelako aldizkaria», nabarmendu dute.

Alde horretatik, «tarte hau baliatuz, herritar denei esan nahi diegu aldizkaria guzti-guztientzat zabalik dagoela eta era guztietako kolaborazioak ongi etorriak izango direla», argitu dute. Honekin guztia-ekin batera «hasiera-hasieratik *BerrobiBerrin* publizitatea jarri duten guztien laguntza gogotik eskertu» nahi izan dute. «Izan ere, ekarpen horiei esker argitaratzen da urtero-urtero aldizkaria», gaineratu dute.

Aurreantzean, beraz, urtearen amaieran jasoko dute aldizkaria berrobitarrek. Sanagustin jaietan, berriz, festen egitaraua jasoko dute. Jai Batzordea arduratuko da liburuxka horretaz.

Peñascal fundazioak hiru ikastaro antolatu ditu datorren ikasturterako

Tolosa » Soldadura, arotzeria metalikoaren eta jatetxe zein tabernetako sukaldari eta zerbitzari tailerrak izango dira.

ERREDAKZIOA

Peñascal Fundazioak Tolosaldea Garatzenekin batera, Prestakuntza Profesionalerako Hastapeneko Programaren barruan hiru ikastaro eskainiko ditu datorren ikasturtean: soldadura ikastaroa, arotzeria metalikoaren ikastaroa eta jatetxe eta tabernetarako sukaldari eta zerbitzari ikastaroa.

Kurtsu bakoitzak bi urtetan banaturiko 2.000 orduko iraupena du, eta horietatik 400 eskualdeko enpresetan eginiko praktikak izango dira.

Ikastaro hauetan 16 eta 18 urte bitarteko gazteek hartu ahaliko dute parte. Informazio gehiagorako 943 67 61 61 edota 943 67 51 95 zenbakietara hots egin daiteke.

Prestakuntza Profesionalerako Hastapeneko Programak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak sustatzen eta finantzatzen ditu eta guztiz doakoak dira. Hauen egutegia irailetik ekainera izango da, 08:00etatik 14:00etara.



Soldadura eskainiko dute. I. TERRADILLOS

Kontzertu areto pribatuek SGAErekin ezin dela negoziatu diote

Kultura » Aretoak ACCES federazioaren barruan daude, eta Tolosako Fronton Kafetegia ere bertan dago.

ERREDAKZIOA

Estatuko kontzertu areto pribatuak biltzen dituen ACCES federazioak argitu duenez, «ezinezkoa» da SGAErekin negoziatzea. ACCES 220 areto pribatuak osatzen dute, tartean Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroakoak.

Tolosako Fronton Kafetegia ere Kultura Live erakundeko kide da, ACCESen barruan dagoena, hain zuzen.

Federazioak argitu duenez, hiru urte baino gehiago eman dituzte SGAErekin negoziatu nahian, baina «ezin gara akordio batetara iritsi», argitu dute.

ACCESek euren jarduerara egokituakotako tarifak eskatzen ditu, ostalaritzan eta gaueko aisialdian lan egiten dutenen moduan. Era berean, «musika arloko negozio modelo berriak» ikusita, areto pribatuetako arduradunak aretoei kobratutako konpentsazioak erabiliz lan egitei bideratuak izango direla bermatzeko bilketa sistema jartzeko eskatu zion SGAEri, baina ez dute lortu.

«Indarrean dagoen sistemaren opakotasuna eta kontzertu areto desberdinekin duen harremanetan dauden irregulartasunak sektoreko mesfidantza eta diru-bilketaren desoreka sortu ditu», argitu du federazioak.

«Taldeen kontzertuek berebiziko garrantzia hartu duten honetan ez dugu ulertzen nola SGAEk ez dituen kontzertu aretoak laguntzen euren promozioa eta zabalkunde hobetzeko», gaineratu du.



'BerrobiBerri' aldizkariko lantaldea. HITZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



Igerilekuaren alboan dagoen zelaietan, eguzkia hartzeko aukera dago. E. EZEIZA

Beroari aurre egiteko, onena, igerilekua

Leitza » Eguraldi ona aprobetxatuz, jendeak uretan ibiltzeko hautua egin du; abuzturako ikastaroak antolatu dituzte.

ERREDAKZIOA

Gaur eta atzo bezalako beroari aurre egiteko aukera paregabea eskaintzen du Leitzako igerilekuak. Ekainaren 15ean ireki zituen atean, eta orduan, eguraldi goibelarekin egin zuen, baina orain gauzak aldatu dira, eta hauetaz gozatzeko egun aproposak dira gaurkoa bezalakoak.

Ohiko ordutegiari jarraituz, astelehenetik ostiralera, 15:00etatik 20:00etara dago zabalik, eta asteburutan, 11:00etatik 20:00etara. Udal igerilekura joan nahi dutenek, batetik, egun bateko sarrera erosita egin dezakete, bestetik, 10

egunetako abonarekin, eta azkenik, uda guztiko abonua eskuratu-ta.

Horretarako, interesatuak Leitzako edozein banketxetara joan daitezke, eta bertan, adina eta bazkide diren edo ez zehaztuta, abonoa erosi. Bertan jasotako errezi-boa gero, igerilekuan erakutsi beharko dute, eta han, txartel bat egingo diete. Sarreraren prezioa desberdina izango da egunaren eta adinaren arabera.

Igeriketa ikastaroak abuztuaren

Igeri egiten ez dakitenek, uda honetan ikasteko aukera bikaina dute Leitzako udal igerilekuan. Ikastaroak antolatu dituzte. Hauek abuztuaren 16an hasiko dira eta irailaren 1ean amaitu. Saiok ordu erdikoak izango dira eta adin guztietako jendearentzat. Izen-ematea hilabete honetan zehar egin daiteke, igerilekuan bertan.



Ettxeko txikienentzat sakonera gutxiko igerileku bat ere badago. E. EZEIZA

Laburrak

Udalbatzak ezohiko bilkura egingo du bihar iluntzean

LEITZA • Udalbatzak Ezohiko bilkura egingo du bihar, udaletxeko Batzar Aretoan, 21:00etan. Bertan ondorengo gaiak jorratuko dituzte, besteak beste: hirigintza planare aldaketa puntualaren hasierako onarpena; hileta zibilak baimentzeko eta egiteko ordenantza eta animalia arrikutsuak edukitzea baimentzen duena.

Hiria Antolatzeko Plan Orokorra osatzeko aukera

BERASTEGI • Hiria Antolatzeko Plan Orokorra tramitatzen ari den bitartean, Udalak Berastegirako aurreikusten diren etxebizitza tasatuak erosteko interesatuaren hasierako zerrenda bat egin nahi du. Horretarako Udalean dagoen eskabide orria bete behar dute interresatuak, iraila bitartean. Internetez ere egin daiteke.

Mobilizazioak ari dira egiten Maite Aranalderi babesa erakusteko

Ibarra » Herenegun batzar informatiboa eta elkarretaratzea egin zituzten; gaur iluntzean giza-katea egingo dute.

ERREDAKZIOA

Maite Aranalde preso ibartarrak jada aste bat darama gose greban. Poitiers-Vivone espetxean bakar-turik dago eta horregatik, ekin zion protestari. Gose grebarekin bakar-tzearekin amaitzea du helburu. Eskualdekoari babesa eskaintzeko asmoz, eta bere aldarrikapenekin bat egiteko, Ibarra Amnistiaren Aldeko Mugimenduak hainbat ekimen antolatu ditu.

Maite Aranalde maiatzaren 20an atxilotu zuten Frantziako polizia Baionan eta hasieran Fresneseko espetxera eraman bazutene ere, ondoren, orain dagoen kartzelara eraman zuten. Bertan dagoen euskal preso bakarra da gaur egun.




Herenegun batzar informatiboa eta elkarretaratzea egin zituzten. HITZA

Datozen egunetan hainbat protesta

Herenegun iluntzean batzar informatiboa egin zuten eta ondoren, elkarretaratzea. Bestalde, gaur 19:30ean giza-katea egingo dute herriko plazatik abiatuta. Honez gain, ostegunero mobilizazioak

egingo dituzte 19:30ean. Gainera, hilaren 17an berriz, egoerak bere horretan jarraituko balu eta gose greban jarraituko balu, preso dagoen Poitiers-Vivonneko espetxera martxa burutuko lukete. Hara joateko, izena emateko zerrendak ohiko lekuetan jarri dituzte.



Lehen: 31,53 €
Orain: 25,22 €



Lehen: 19,83 €
Orain: 15,86 €



Lehen: 66,12 €
Orain: 52,9 €

skunkfunk

% 20

kot

% 20



Lehen: 28,48 €
Orain: 22,78 €



Lehen: 57,17 €
Orain: 45,74 €



Lehen: 28,48 €
Orain: 22,78 €



Euskal Herriko Plaza orrialdea



EHikoPLAZA

www.euskalherriko

plaza.com





Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Antzerkia

■ **Tolosa.** Kixka (txotxongiloak) Plaza Berrian 19:00etan eta Mariano Martinez (kafe antzerkia) Solana 4 tabernan 22:30ean.

Deialdiak

■ **Berastegi.** Salontzo jaiei hasiera emateko, abuztuaren 6an, herri afaria egingo dute, (txekorra burduntzian). Txartelak salgai Zelai taberna, Dendaberri, Urepele biltoxia eta Basurde elkartean 16 eurotan (12 urtetik beherakoek 8 euro).
■ **Tolosa.** 2011ko Tolosa Egutegirako argazki lehiaketa erretratuei buruzkoa da. Oinarriak: <http://tolosagasa.blogspot.com>. Erakusketan jasotzen dituzten 40 argazkirik onenak bilduko dituzte eta bisitarien onena aukera dezakete.
■ **Tolosa.** Uztailaren 16tik 18ra Eriste (3.053 m) eta Posets (3.375 m) mendietara irteera antolatu du Oargik, Viados eta Angel Orus atarpetxeetan lo egingez. Informazioa: www.oargi.org.
■ **Villabona.** Uztailaren 11rako Oza-Castillo de Atxer (2.384 m)-Aguerri (2.449 m)-Gabardito (Huesca) mendi irteera antolatu du Aizkardik. Informazioa: www.aizkardi.com.
■ **Villabona.** Ahozkatasuna kulturaren, eguneroko jardun berezitu eta haur munduan jardunaldiak burutuko dira uztailaren 22, 23 eta 24an Subijana Etxean. Izen-ema-

tea uztailaren 16ra arte, 50 eurotan (EHBeko bazkideek eta ikasle eta langabetuek 35 euro) Mintzola Fundazioan (943 69 41 29 edo administrazioa@bertsozale.com).

Zinema

■ **Tolosa.** Tulpan filma jatorrizko bertsoan Leidor aretoan 21:00etan, zine-forumean. Antolatzailea: Tolosako Zine-Kluba.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz azuoa, 9. 943 67 5118.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

» TELEBISTA

28 Kanala
08:30. San Pelaioak. **09:00.** Muka-muka. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** Kafe terdi. **10:30.** On ein! **11:00.** Ikusmira. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Mendi aldean bizi. **12:30.** Wazemank. **13:15.** Klipak. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Kafe terdi. **14:30.** On ein! **15:00.** Ikusmira. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Mendi aldean bizi. **16:30.** Wazemank. **17:15.** Klipak. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Gipuzkoako kultura. **18:30.** Ura zain dezagun. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Eskuokin.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Alurr dantza taldeko 30 lagunetik gora joan dira Frantziara, jaialdian parte hartzeko asmoz. HITZA

Frantzian dira Alurr-ekoak

Ibarra 'Munduko kulturak eta ohiturak' jaialdia ari da ospatzen, eta bertan parte hartzen dute eskualdekoek.

ERREDAKZIOA

Igande gauean abiatu zen Alurr dantza taldea Frantzia aldera, non, Benin, Georgia, Rapa Nui (Pazko Irla), Indonesia, Lituania, Mongolia, Nigeria, Peru eta Frantziatik jondako taldeekin batera, Romans-Sur-Iseren (Frantzia) hilaren 3tik 11ra bitartean ospatzen ari den Munduko kulturak eta ohiturak izeneko XXXIII. Nazioarteko jaialdian parte hartuko duen.

Bihar *Euskaldunak* ezagutzen izenpean ekitaldi nagusia eskainiko du Alurr-ek. Giroa berotzen jo-

ateko, antolatzaileek afari eskalduna eskainiko dute parte hartu nahi duen ororentzat, eta jarraian, eskualdekoen emanaldiaz gozatzeko aukera izango dute bertarautakoek. Hurrengo egunean, larunbatean, *Munduko Lorategiekin Gaua* izenburupean, Georgia, Rapa Nui, Lituania eta Nigeriako taldeekin batera emanaldia eskainiko du Alurrek Nazioarteko Zapataren Museoko lorategietan.

Azkenik, hilaren 11n, hau da, igandean, jaialdian parte hartzen duten talde guztiek Saint-Donat-sur-l'Herbasse-eko kaleetan zehar desfilea egingo dute eta udal-txean agintarien harrera izango dute. Arratsaldean berriz, *Gure ezberdintasunak lantzen* izenpean, Benin, Georgia, Indonesia, Lituania, Peru eta Frantziako taldeekin batera emanaldia eskainiko du

Alurrek. Dantza Taldearen helburu estrategikoetariko bat «euskal dantza eta kulturaren bitartez beste herrietako kulturetara gerturatzeko aukera izango dute bertarautakoek, jarduerak parte-hartzaileengan kultur aniztasunarekiko, aparteko sentsibilitate, jakinmina eta elkartasuna sortu eta sustatu» nahi duela diote taldeko arduradunek.

Gazteak kulturartekotasuna eta elkartasuna «egun hainbat herrik, kulturak eta talde etnikok bititzen eta pairatzen dugun egoera dela eta» ezinbesteko estrategia sozialak direla ohartarazi nahi dute Dantza Taldekoek, era berean. Hori dela eta, euskal dantza eta musika akuilu eta bide izanik, Alurrek kulturaren eta kulturen arteko harremana sustatzea eta garrantzea du xede.

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak ezkontzak - jaioberriak jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat
2 sarrera (lagun batentzat) ditu



Lagun Onak-en eskutik
MACACOren kontzertua
'mensajes del agua'
Azpetiko Garmendipe Futbol Zelaia
uztailak 10, larunbata/22:00

sarrerak eskuratzeko deitu goizez:
943-65 56 95
harpidedun kodea eskura duzula
jasotako deli gutzietan artean zozketa egingo dugu.
Sardunuen izenak uztailaren 9ko egunkarian.

harpidedunak
TXOKOA HITZA